

Negu hotza Elokadin

Erratzuko Zubi Gorri tabernan nintzen batez, zoko batetik Erramun Martikorenaren ahotsa altxatu zen ilunean: 1980ko hamarkadako *Otsobi* diskoko *Elokadiko mendian* edo *Abenduaren lauean* kantak ikara hazi zidan bizkar hezurrean gora, begiak hezetzera. Baigorriko abeslariaren boza zoharrak mendeak eta karroin aldiak atzera eraman ninduen, gau beltza, izar lokak eta ardi marrakak ikur.



Itxaro Borda

IRUDIA: AINARA AZPIAZU "AXPI"

Euskarazko kantutegian kausitzen dira ofizioak edo lanbideak aipatzen dituzten antologiako puskak. Umerez, malenkoniaz ala seriosasunez harilkatzen direnak. Halatan, laborantza, arrantza, oihalgintza, ikazkintza, artzaintza beraien artearen betetasunean agertzen zaizkigu, gizaldiak ahitu arren.

Aski da gelditzea bertso mutur baten leize hegian eta irudimena akuilatzea, bertan gaude gu ere, demagun Elokadiko Mendian, larrazken hondarreko haize zakarra arteka guztietatik pasatzen uz-



ten duen borda bateko su durduzatua-
ren ondoan, artzainekin solasean, hone-
taz eta hartaz. Eta rai larai larai larai.

*Abenduaren lauean
Elokadiko mendian
ene ardien erdian
Rai larai larai larai
ene ardien erdian
hotzak hartu nitian...*

Nekazaritza doi bat ezagutzen due-
na menturaz harrituko da abenduaren
lauan ardiak bortuan direla entzuteaz.
Normalean artaldeak urria erditsutan
jaisten dira alhagietatik, elurrak eto-
rri aurretik. Baina Elokadi ez da halako
bortu gorakoa: zazpi ehun eta hiruro-
gei metrotan zutuntzen da, Nafarroaren
bihotzean, Aldude herria eta Beartzun
arroilak osatzen duen auzoaren erdian.
Daldaraz gabiltza Belaun portuko ten-
peraturen apaltasun garratza azpima-
rratzen duen duelarik koblakariak.

Alabaina, askoren antzera, Elokadi
gailurra Erramun Martikorenaren be-
gietatik ikusi dugu, egiazki begimendu
aurretik Beartzungo kuartel zaharra-
ren maldatik. Hor, lehen bistan uste da

bide bazterrean bermatzen den masa
begetala huntz hostoaren erreinua dela,
pixka bat inguratu eta etxe gotor baten
arkitektura sumatzen hasten garene-
raino: harrizko ateak, leiho karratuak,
burdinazko balkoia... Aldudeko harana-
ren eta Baztanen artean gaueko lana,
kontrabandoa hots, indartsu zegoen ga-
raiko aztarna misteriotsua da kuartela.

Soa hedatu eta han dago Elokadi.

Urrunetik irudi luke Elokadik haritzez
eta pagoz osatu oihan koroa dakarra-
la kasko inguruan. Alhagiak ageri dira,
patar bezain nasai. Basagaretik goaz, oi-
nez, seinale zuri-berdeei jarraituz, itzul-
tzerakoan Beartzuneko zubira jaisteko,
sei koplak buru zokoan arraiki dantzan.
Urratsaren neurkatzeko egokia da abes-
tia, zainetan erritmo zaintsua isurtzen
digula. Eskualde oparoa da, artzainen
eta tratulanten elkar trukatzeko ugariak
zirela sentitzen da: hor dira prehistoria-
ko mugimenduen aztarnak, harrespilak,
zutarriak eta trikuharriak.

Artzainez, kontrabandistez eta muga
zainez gain Elokadiko maldetatik iragan
ziren Napoleonen armadako ehiztariak,
Baigorriko Harizpe mariskalak kudea-
tzen zituenak. Marrapietarako galtzada

geratzen da denbora haietako oroiga-
rri gisa: Frantses enperadoreak 1808an
moldatu zuen Baztanen zehar, Espai-
niara zuzendu zenean, Portugal setiatu
asmoz. Banka, Aldude eta Urepele halaz
biziki hurbil dira Beartzun eta Elizon-
dotik. Neguan hargatik, elurra denean,
pasaia zailagoa da.

Abenduaren lauan imajinatzen ahal
ditugu artzainak hotzez trantsituak, be-
rotasun ametez garra atitxatzen dute-
la. Manta behar gorria azpimarratzen
du koblakariak, Azkuek bildu ez, baina
Martikorenak, agian ohituratik jasoaz,
eskaintzen digun bigarren atalean:

*Etxolan baditut bi manta
bat bestea bezain xarmanta:
Otto zenaren presenta
Rai larai larai larai
otto zenaren presenta
dena zilo eta tarrata...*

*Tantatan tarrabian
manta berria botikan
nehor ez dila abian
Rai larai larai larai
nehor ez dila abian
Karriren dela bertze urtian.*



Ardurenean artzaina bakar-bakarrak irudikatzen dugu mendietako xendretan bere ardien gibeletik, baina gehienetan bi edo hirunaka ibiltzen ziren lanean, gogor. Lankide baten izena ezagutzen dugu. Lauriano, umore aski onekoa dela ematen du. Beharbada, denbora errazago eta gozoago pasatzeko, egilearen bertso partaidea zitekeen.

*Ene lagun Lauriano
ezta kexatzen oraino
holakorik egundaino
Rai larai larai larai
holakorik egundaino
ez dut ikusi oraino.*

Bortüan Ahüski ospetsuan, gailur mitikoko *hur hunak osoki* hartaz beste ontasunik ere aurkitzen zen bezalaxe, Behorlegiko herritik saldoan mutikoe-kin jostatzera zetozen *neskatila ejerrak* adibidez, Elokadin halaber neska gazte plazentak etortzen ziren artzainen bisitatzera, beraien alaitasuna, bizitasuna eta maitasuna ekarriz. Maria eta Kattalin ordea ez dira biziki fidatzen:

*Maria eta Kattalin
etxeko zoko biak berdin
ez dute nahi gurekin
Rai larai larai larai
ez dute nahi gurekin
gaurik pasatu Elokadin.*

Cancionero Vasco bilduman bertsio zuhurragoa irakurtzen dugu. Martikorenak hegaldarazten duenaren kokin eta lizun zama ukatu ezina da. Azkue apezak aldiz, garbitasuna bide zuen lehia-tzen, aldaera hau paperean etzan zue-nean:

*Maria eta Kattalin
gure etxen oro berdin
eztute nahi ardiekin
Rai larai larai larai
eztute nahi ardiekin
gaurik pasatu Elokadin.*

Artzainak gehienetan lurrik gabeko nekazariak ziren. Etxetiarrak. Etxean ezkontzen zenaren haurride saldoko baten bat. Etxeko jaunen egitura sozia-la ez zen baitezpada samurra, sistema-tik kanpo jardutera behartuentzat. Hala ere, artzainak, gazteak ziren kanta ho-netan nola, airosak, dantzan, solasean, bertsoan, zirtoka, basahaideetan trebe,

lana bazuten eta neskek begi suharrez begiratzen zieten. Zer gehiago eskatu zezaketen? A bai, manta bat neguaren atarirako.

Olerkian nabaritzen da etxearen eta etxolaren arteko funtsezko ezberdintasuna. Bat aberatsa da, bestea gabeziak markatua. Agian hor kokatzen da sekula ikertzen ez den klase borroka mutu ba-ten hatza. Etxean oparotasuna da nagusi:

*Etxean eder da behia
lanka mail, adar handia
beterikan establia
Rai larai larai larai
beterikan establia
zein den eder ikustia...*

» *Cancionero vasco* bilduman bertsio zuhurragoa irakurtzen dugu. Martikorenak hegaldarazten duenaren kokin eta lizun zama ukatu ezina da. Azkue apezak aldiz, garbitasuna bide zuen lehia-tzen, aldaera hau paperean etzan zue-nean

» Olerkian nabaritzen da etxearen eta etxolaren arteko funtsezko ezberdintasuna. Bat aberatsa da, bestea gabeziak markatua. Agian hor kokatzen da sekula ikertzen ez den klase borroka mutu baten hatza

Eta etxola zer? Mehetegi, erabat. Bor-da soila da, laster eta doi eraikia, artekaz eta itaxurrez josia. Zakurra ere egoera larrian erakusten digute:

*Etxol' aitzinean xakurra
tripa azpian muturra
baina ez zaude gustura
Rai larai larai larai
baina ez zaude gustura
itaixura burura...*

Sukaldeko berotasuna eta garbitasu-na biak deitoratzen ditu bertsolariak. Txabolan emazteen barnerako tirak sor-tu gozotasun izpirik ez dagoela azpima-rratzen du Azkuek gaitibatu bertsioak:

*Hemen ez da holakorik
hotza alde orotarik
hunat arras bekan baizik
Rai larai larai larai
hunat arras bekan baizik
ez da jiten emazterik.*

Astean bizpahiru ostiral bazituzten orduko artzainek. Gaurkoek bezala fun-tsean. Lanbideak, mendeak mendete-gi, hazi duen erromantismo aieruetatik mila legoatan gaude Elokadiko Mendian eta abenduaren lauan.

Euskal Herriko kantutegietan leku hautuan dagoen pieza eder hau, biho-tzetik ezpainetara lerratzen den irri ba-tez abesten dugu, arraiki, lanera goa-zenean demagun. Resurrección María Azkue jakintsuak bere lanik ospetsue-nean sartu zuen, musika partizioarekin, Aldudeko Uhart erretoreari entzunik. Oronen buru Martikorenak oparitzen digunaren eta Azkuek bildu bertsioak kasik antzekoak dira. Salbu... Maria eta Kattalin bizitorean aipuren orduan: apezarena nabaritzen da hitzetik, beka-tu zantzuetatik hain urrun alabaina...

*Ez dute nahi ardiekin
gaurik pasatu Elokadin...*

Poema zoharra noizkoa den ezin da zehaztu. Ziur gaude gaurkotasunik be-deren ez duela galdu. Artzainak hor dabilta beti, mugak ukatuz, ardiak nora, beraiek hara, kezkatuak eta bate-ra alaitsuak. Aldude, Urepele eta Baz-tango alhagietan ageri dira eta hurbil-tzen gatzaiizkienean beti prest direla ele zuhurrak trukatzeko. Bideaz non-dik doan galdatzen diegunean erantzua argia da:

– Ardiak pasatzen diren xendretatik pa-satuko da bai jendea!

Rai larai larai larai... ■